Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Ogasuneko Batzordea
Comisión de Hacienda

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02

## UDALBATZARI

**PP taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.**

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2016ko abuztuaren 16an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

Igogailuak jartzea igogailurik ez duten etxeetan; aldapak, plataformak nahiz ezkaratzaren eta igogailuaren artean dagoen aldea igotzeko eta jaisteko balio duen beste edozein gauza jartzea edo obra egitea bultzatzeko, proposatzen dugu atal hau ezabatzea "Udalbatzak interes bereziko edo udalaren mesederako jotzen dituen obrak" izenburuko 5. puntuan.

Ezabaketa horrekin, zerga hori ordaintzetik salbuetsita gelditzen dira eranskinean jasotako jarduketak, udalerriko higiezinetarako irisgarritasuna sustatzeko udal politikari jarraituz.

Hori dela eta, honako ARAU PROPOSAMEN hau proposatzen dugu ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI buruz:

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango den Eranskinetik hau ezabatzea:

5. puntua "Udalbatzak interes bereziko edo udalaren mesederako jotzen dituen obrak".

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).**

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 16 de agosto de 2016 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

Con el objeto de favorecer la instalación de ascensores en inmuebles que carezcan del mismo, instalación de rampas, plataformas elevadoras, elementos y cualquier otra obra que sirva para salvar el desnivel existente entre el portal y el ascensor, se propone suprimir este apartado del punto 5 "Obras declaradas por el ayuntamiento pleno de especial interés y utilidad municipal".

Se propone esta supresión quedando exentas de pagar este impuesto aquellas actuaciones descritas en el anexo, siguiendo con la política municipal de favorecer la accesibilidad en los inmuebles del municipio.

Por todo ello, se propone la siguiente **PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.**

Supresión del Anexo a regir desde el 1 de enero 2017 el:

Apartado 5 "Obras declaradas por el Ayuntamiento Pleno, de especial interés y utilidad municipal".

| | |
|---|---|
| Igogailuak jartzea igogailurik ez duten etxeetan; aldapak, plataformak nahiz ezkaratzaren eta igogailuaren artean dagoen aldea igotzeko eta jaisteko balio duen beste edozein gauza jartzea edo obra egitea<br><br>Instalación de ascensores en inmuebles que carezcan del mismo, instalación de rampas, plataformas elevadoras, elementos y cualquier otra obra que sirva para salvar el desnivel existente entre el portal y el ascensor | % 0,25 |

Ogasun Batzordeak, 2016ko irailaren 15eko bilkuran, EH BILDU taldeak aurkezturiko zuzenketa bat baztertu ondoren, aurreko Arau proposamena aztertu du.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En sesión de 15 de septiembre de 2016, la Comisión de Hacienda, tras rechazar una enmienda presentada por el Grupo EH BILDU, ha dictaminado la precedente Proposición Normativa.

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

**LEHENA:** Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

**BIGARRENA:** 2017ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Donostia, 2016ko irailaren 16a

ACUERDOS:

**PRIMERO:** Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

**SEGUNDO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2017, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

San Sebastián, 16 de septiembre de 2016

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6114n V 2005-02